

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**205/2021 Foru Agindua, uztailaren 27koa. Hasierako onespena ematea Rubén Batanete Ginel jaunak Arroiabe herrian, Arratzua-Ubarrundiko udalerriko lurzoru urbanizaezinean sustatutako nukleo zoologikoaren (txakurtegia) proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari**

Rubén Batanete Ginel jaunak Arratzua-Ubarrundiko Udalari lizentzia eskatu dio Arroiabe herriko 3. poligonoko 1.264 lurzatian, udalerrri hartako lurzoru urbanizaezinean nukleo zoologiko bat (txakurtegia) jartzeko jarduera sailkaturako.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean Gune Zoologikoen Erregistroan baimentzeko eta inskribatzeko aurkeztutako proiektua dago, eta bertan adierazten da instalazioa "20 metro koadro baino gehiagoko txakurtegiak" kategoriari dagokiola, Rottweiler de Batanen izenarekin. Zentroaren helburua da arrazako txakurrak antzutu gabeko aleekin hautatu eta hobetzeko programa eta mantentzea, Nazioarteko Txakurren Federazioaren, Espainiako Real Sociedad Caninaren eta Espainiako Rottweiler Klubaren kirol lehiaketetan eta morfologia erakusketetan parte hartzeko xedearekin. Sustatzailea "de Batanen RSCE 6.377 zenbakiaren" aurrizkiaren jabea da. Aurkeztutako proiektuan jasota dago sustatzaileak hiru ale dituela gaur egun.

Instalazioari dagokionez, lurzatiak 2.220 metro koadroko azalera du guztira, eta horietatik 1.077 metro koadro txakurtegia eta jolas parkea jartzeko erabiltzen dira. Bi aldeen arteko banaketa Hercules motako sare tolestuarekin egiten da. Lurzati osoa perimetroz ixten da, eta ariketa eremuak, aldi berean, hesia du. Lau txakurtegi daude guztira, animalien esparruetarako berriazkoak diren zuntz-zementuzko xafla granondaz estaliak, zurezko panelez hornitutako hormak eta sarezko aurrealdea, barrutia aireztatzeko, urteko sasoirik hotzenetan txakurrak babesteko etxolarekin. Instalazio horien tamaina 21,6 metro koadrokoa da, araudi aplikagarriak ezarritako gutxieneko neurriak betez. Proiektuak, halaber, honako eremu hauek aipatzen ditu: lazaretoa, ariketa eremua, erditze eta txakurkumeen eremua, edateko uraren instalazioak eta hondakin urak eta gotzatzak kentzeko bitartekoak. Azkenik, proiektuak higiene programa jasotzen du.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen denez, lurzattia nekazaritzako eta abeltzaintzako interesagatik J.25 zona babestu gisa kalifikatuta dagoen lurzoru urbanizaezinean dago kokatuta. Udalerriko hiri antolamenduko plan orokorrean jasotakoarekin bat etorritz, 1.6.1.1 artikuluan ("babes bereziko landa eremuetako kalifikazio globalaren bidez zuzenean baimendu daitezkeen erabileren sailkapen orokorra, J.1 babes bereziko eta J.2 zainduak"), 1.f) apartatuan, erabilera gisa jasotzen dira abeltzaintzako jarduera bereziak, eta horien artean berriaz adierazten dira gune zoologikoak.

Artikulu beraren 2. puntuan onura publikoko edo interes sozialeko eraikuntzak eta instalazioak jasotzen dira, hala nola beren izaera eta ezaugarrietatik landa ingurunean kokatu behar diren zerbitzuak ematera bideratutakoak, baldin eta onura publikokotzat edo interes sozialekotzat jotzen badira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 28.5.a artikuluan eta Premiazko Neurrii buruzko 105/2008 Dekretuaren 4.2 artikuluan jasotakoaren arabera, eta sistema orokor ez badira.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran da goen lurzorian, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeie eguneha jendurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea Ruben Batanete jaunak Arroiabe herriko 3. poligonoko 1.264 lurzatian, Arratzua-Ubarrundiko udalerriko lurzoru urbanizaezinean sustatutako nukleo zoologikoaren (txakurtegia) proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendurrean jartzea, hogeie eguneha, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta haren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 27a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**